

2023-2024
Memoria





2023/2024 ikasturteko memoria
Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea

Ilustrazioak:
Oihana Ugarte

Maketazioa eta diseinua:
Kalaka Koop. Elk. Txikia

Inpresioa: Leitzaran grafikak

Tolosa 2024



	Aurkezpena	5 or.
	Espazioari buruzko datuak	7 or.
	Organigrama	9 or.
	Zerbitzuak	13 or.

	Elkarguneak	16 or.
	Jabetze eskola	19 or.
	Ekintzak	34 or.

Aurkezpena

Aurkibidea



2018. urtean abiatutako parte hartze prozesuaren ondoren, eta lan eta hausnarketa ugariren ondorioz, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak 2024ko urtarrilak 8an ireki zituen bere ateak goiz eta arratsalde. Zerbitzu bakarra martxan izatetik, gutxinaka 7 zerbitzu eta elkargune eskaintzera iritsi gara hilabete hauetan.

Talde Eragilea osatu, Koordinazio Gunea martxan jarri, Gune Zabala deitu... Makina alditan bildu gara Andragorako mahai eta aulkien bueltan, hausnartu, elkarbanatu eta erabakitzeko. Gutxinaka, zerbitzuen erabilerak gora egin du, eta eskualdeko emakume ezberdinen beharrei erantzuna emanez joan gara denbora labur honetan.

Andragora eskualdekoa izanik, Tolosaldeko hainbat herrietara bisitak ere osatu ditugu, etxe honek eskaini dezakeena eskualdera zabaldu ahal izateko.

Honez gain, Tolosako Udaleko Berdintasun sailak eta Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun sailak antolatutako Jabetze Eskolaren etxe ere izan gara, bai eta Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak zein Andragorak antolatutako hainbat jarduera eta ekimenen aterpe ere.

Gehiegiluzatugabe, eta memoria honetako erraiak ateratzen hasi aurretik, ongi etorri Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxeko 2024 urteko memoriara. Lehen hilabete hauetan egindako ekimen eta jardueren bilketara, hain zuzen.

Jarrai dezagun etxea bizi mantentzen, jarrai dezagun txoko ezberdinak gure egiten, eta jarrai dezagun feminismotik eraikitzen.



Espazioari buruzko datuak




Gure Emakumeen Etxeak 600m2 ditu, eta hauek betetzea eta bizia ematea denon aukera denez, Andragorako helburuekin bat datozen talde zein norbanakoek eskatu dezakete espazioa.

2024an,
honako talde hauek
erabili dituzte
Andragorako espazioak:


- Tolosako Asanblada Feminista
- Tolosaldeko Asanblada Feminista
- Evaren Alabak Antzerki Taldea
- Baturemore Tolosaldeko Batukada Feminista
- Komorebi Produkzioak Kultur Elkartea
- Booloo Senegal elkarteko emakumeak
- Baketik Fundazioa
- Oneka, Emakume Pentsiodunen Plataforma

Organigrama



Andragorakerabakigune hauek ditu: Talde Motorra, Koordinazio Gunea eta Gune Zabala. Hauetan hartzen dira Andragoraren bueltako erabaki ezberdinak, bakoitzak funtzio eta osaera propioak dituelarik.

Talde Motorra edo Talde Eragileari dagokionez, hau eskualdeko mugimendu feministetako ordezkariak osatzen dute.



Oraingoz, mugimendu hauetako ordezkariak osatzen dute taldea:

- Berastegiko Emakumeak
- Asteasuko Emakumeak
- Oneka, Emakume Pentsiodunen Plataforma
- Tolosako Asanblada Feminista
- Lurgatz, Villabonako Asanblada Feminista
- Parte hartze Prozesuko Talde Eragileko ordezkariak



Eraketa: 2024ko urtarrilak 15ean.

Biltzeko maiztasuna: hilero.

Funtzioak:

- Andragoran antolatzeko proposamenak baloratu eta aurrekontuak begiratu
- Programazioa onartu
- Antolatutako jardueren funtzionamendua ebaluatu eta behar izanez gero hobekuntza-neurriak hartu.
- Sor litezkeen arazoen aurrean irtenbideak aurkitzeko proposamenak osatu.



Eraketa: 2024ko martxoak 20an.

Parte hartzaileak: lau ordezkari politikok (eskualdeko bik eta Tolosako beste bik); Talde Eragileko ordezkari bat eta Tolosaldea Garatzen-eko Andragorako arduraduna.

Biltzeko maiztasuna: hasiera batean hilean behin, behin martxa hartuta, 2-3 hilez behin.

Funtzioak:

- Jarraipen orokorra egin
- Mugimendu feminista eta erakundeen elkarlana bultzatu
- Finantzazio aldetik sortu daitezkeen arazo edo zalantzei irtenbidea eskaini.



Eraketa: 2024ko otsailaren 26an.

Parte hartzaileak: Egitasmoaren inguruan interesa duen edozein emakume.

Biltzeko maiztasuna: urtean, gutxienez, bi bilera

Funtzioak:

- Andragoraren lan-ildo estrategikoak erabaki.
- Kudeaketa orokorraren jarraipena egin.
- Eskualdeko emakumeen arteko harremanak eta sareak lantzea.

Organigraman ageri diren Lan Taldeei dagokienez, hauek Talde Eragileak bultzatutako Lan Taldeak izango dira, bakoitzak bere osaera eta helburuak edukiko dituelarik.

Halere, oraindik ere ez da horiek bultzatzeko beharrik agertu, eta oraingoz ez da Lan Talderik osatu.

12



Bide honetatik aipatu, Andragorako Dinamizatzaileak eta Tolosako Udaleko Berdintasun Teknikariek ere parte hartzen dutela erabakigune hauetan, nahiz eta bozkatzerako garaian, ez eduki boto eskubiderik.

Zerbitzuak



Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak eskaera egiten duen edozein emakumeri bideratutako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, guztiak doakoak.

ARRETA ETA BIDERAKETA

Emakumeen Etxera etortzen den edonori egindako lehen arreta, bideraketa, eta informazioa helaraztea helburu duen zerbitzua.

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Egilea:
Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxeko langileak

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Emakumeei zuzendutako arreta zerbitzu juridiko integrala, ikuspuntu interseksional feminista, internazionalista zein antiarrazista oinarri.

Oinarrizko informazio eta lege-aholkularitza espezializatua eskaintzen da: Familia Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea, Indarkeria Matxista, Espetxe eta Zigor-Zuzenbidea, Hirugarren adina (erretiroa, pentsioa eta alarguntasuna), izapideak egiteko aholkularitza juridikoa, zein generoagatik egokitzen jotzen den beste edozein gairi buruzko lege aholkularitza. Horrez gain, penal alorreko adingabekoen gaineko indarkeria egoerak (adingabekoen fiskaltza), bai eta familia eredu berriak ere: familia erregularizaziorako prozeduren hasierako orientazioa eta aukeren azterketa eta genero identitate anitzak. Erregularizazio prozesuak ere artatzen dira.

Lekua:
Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxea

Ordutegia:
Bi astez behin, asteazken arratsaldeetan
16:00-20:00

Egileak:
Ane Iturbe Mujika eta
Kistiñe Lujanbio Galdeano

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA

Emakume izateagatik gizarte patriarkal bateko diskriminazioak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza psikologikoa, indibidual edo kolektiboa.

Lekua:
Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxea

Ordutegia:
Txandaka, ostegun goizetan 10:00-15:00
eta asteazken arratsaldeetan 16:00-21:00

Egilea:
Maite Blanco Gomez



IKASKETAK ETA PRESTAKUNTZA IBILBIDEAK HOMOLOGATZEKO AHOLKULARITZA

Migratutako biztanleriaren atzerriko ikasketak homologatzeko, baliozkotzeko eta/edo baliozkotzeko prozesuei buruzko aholkuak ematea eta jarraipena egitea da aholkularitza honen helburua, batez ere, mendeko pertsonak zaintzen eta etxeko zerbitzuan lan egiten duten emakumeei. Horrez gain, banakako ikaskuntza-ibilbideetan lagundu eta emakume migratuen autonomia pertsonalari eta ahalduztzeari laguntzea ere izango da aholkularitza honen jomuga.


Lekua:
Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxea

Ordutegia:
Hilabeteko lehenengo asteartean,
16:00-20:00

Egilea:
Bidez Bide elkarteak

Elkarguneak

Ekimen eta jarduera puntualak gain, hainbat elkargune ere osatu dira Andragoran, beste hainbat helbururen artean, emakume anitzak batu eta saretu ahal izateko.



ERREPARAZIO GUNEA

10 emakumek Tolosako osteopatia zentro batean, osteopata batek egindako sexu-erasoak salatu dituzte. Bide honetatik, Tolosako Berdintasun sailak eta Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeak, erreparazioa abiatzeko gunea, 'elkar-entzuteko gunea' antolatu dute, salaketa jarri edo ez, indarkeria hau sufritu dutenentzat, eta haien gertukoentzat.

Indarkeria matxista pairatu duten emakumeekin berdintasun, ahalduntze eta lanean aditua den Clara Wolfram Perezek gidatu ditu saioak. Tailerrak, babesgune izan dira emakume bakoitzak egin behar duen biderako. Indarkeria jasandako emakumeek pairatzen dituzten isolamendua eta birbiktimizazioa ekiditea eta ahalduntzea eta saretzea sustatzea izan da prozesu honen helburu.

Antolatzailea:

Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea eta Tolosako Udaleko Berdintasun Saila elkarlanean.

17

KANTAGORA

Ageda bezperaren harira, Tolosaldeko hainbat emakume batu eta Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxeko korua den Kantagora sortu zuten. Bide honetatik, ageda bezpera pagano eta feministatik hasi, eta beste hainbat ekimen eta egun bereziren bueltan batu, entsegatu eta plazak hartu dituzte.

AUTO-LAGUNTZATALDEA

Clara Wolfram adituak gidatuta, indarkeria Matxista pairatu edo pairatzen duten emakumeentzako espazio bat da honakoa. Besteak beste, indarrak batu, ahalduntzeko espazioa eskaini, erreparazio prozesua sustatu eta bizipenak ulertzeko espazio bat da auto-laguntza talde hau.

*2024-2025 ikasturteari begira, honen ordutegia aldatu daiteke.

Data: ostegunak
Lekua: Andragoran
Ordua: 17:00 – 19:00*
Antolatzailea:
Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxea
eta Tolosako Udaleko
Berdintasun Saila
elkarlanean.

KAFE TERTULIA

SOS Arrazakeriako etxeko lanen taldeak eta Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Sailarekin elkarlanean antolatuta, asteazkenero jatorri anitzeko emakumeak biltzen dira Andragoran. Kafe edo te baten bueltan, euren bizipen eta esperientziak partekatzen dituzte, SOS Arrazakeriako boluntario batek gidatuta.

Data: asteazkenak
Lekua: Andragoran
Ordua: 17:00 – 19:00
Antolatzailea: SOS Arrazakeriako etxe langileak taldeak eta Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Sailak sustatuta



AMA-SAREA

Ama izan berri diren emakume batzuk ama talde bat sortu dute Tolosaldean, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea aterpe izanik. Saio hauek parte hartzen duten amentzat babesgune dira, esperientzia eta kezkak elkarbanatzeko txokoa izanik.

Saio irekiak dira, eta ama izan berri diren eskualdeko emakumeei bideratuta dago; ez da izenik eman behar.

*2024-2025 ikasturteari begira, honen ordutegia aldatu daiteke.

Data: astearteak
Lekua: Andragoran
Ordua: 10:30-12:30*

Jabetze eskola



Jabetze Eskola emakumeen jabetza eta parte hartze soziopolitikoaren sendotzeko dago pentsatuta, gizarte justu, anitz eta osoagoa lortzeko. Esperientzia eta jakintzak partekatzea da kontua, baina, baita ere, gorputzaz disfrutatzea, diskurtsoak, artea, kultura eta errebindikazioak produzitzea. Finean, munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun, eta era berean, mundua aldatzeko tresnak emango dizkigun esperientzia baten parte izatea.

Ikastaro hauek Tolosako Udaleko Berdintasun sailak antolatzen du, Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun sailarekin kolaborazioan.

2023-2024ko udazken-neguko egitaraua



Emakumeen arteko kantua berreskuratzen

Betidanik emakumeen bizitzan kantuak sekulako presentzia izan du, bai pertsonalki bai kolektiboki. Tresna boteretsua izan da emozioak adierazteko, lan taldeak indartzeko, gure eskubideak aldarrikatzeko, istorioak kontatzeko, pozak ospatzeko edo gure hildakoei omenaldia egiteko. Tailer hau ahots kantuari lekua eta denbora bat emateko jaio da. Hau egiteak ahalduztzen eta aberasten gaituelako.

Parte hartzaile kopurua: 18

Hizkuntza: Euskara / gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ana Sanjose

Xilografia tailerra (linoleo gainean): sormena eta aldarrikapenak plazara!

Xilografia tailer honen bitartez, gure eskuekin dugun sortzeko ahalmenari bide emango diogu. Antzinako teknika hau ikasteaz gain, bakarka nahiz taldean lan egingo dugu, irudi, aldarrikapen feminista eta hainbat mezu paperean eta oihalean estanpatuz. Grabatuaren historian diren eta izan diren emakume artistei buruz ere arituko gara. Kurtsoan eginiko estanpak erakusketa batean erakutsiko ditugu emakumeon artea plazaratzeko xedearekin

Parte hartzaile kopurua: 20

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Oihana Ugarte Iriarte

Batukada feminista

Ikastaroaren helburuak dira emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaratzea, gure irudimena eta sormena garatzea. Horrez gain, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturaren dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok eta feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

Parte hartzaile kopurua: 20

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ainara Sarasketa Alberdi



Biodanza: otra mirada

Musikaren, mugimenduaren eta isiltasunaren bidez, emozioekiko eta bizitzarekiko kontaktua erraztuko dugu, autoezagutzari eta hazkunde pertsonalari lagunduz, askatasun handiagoz adierazteko. Saiok ariketa-sekuentzia bat dute mugimenduaren kategoriaren arabera (erritmoa, arintasuna, arintasuna, potentzia, kemenak, eutonia...), eta banaka, bikoteka eta taldeka egingo dira.

Parte hartzaile kopurua: 19

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Luz Clemente

Euskal emakume idazleen irakurketa feminista

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urtean argitaratutako lanak irakurriko ditugu, egungo testuinguru eta bizipenetatik. Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen ari den kezka, diskurtso eta proposamenak denen artean hausnartzea eta horiek genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea.

Parte hartzaile kopurua: 19

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Oihana Iguaran



Sormenezko argazkigintza ikuspegi feministatik

Adin guztietako emakumeei zuzenduriko ikastaro honetan, guk geuk erabakitako proiektu bat osatuko dugu elkarlanean. Mugikorra edo argazki kamera erabiliz, sormena landuko dugu, betiere ikuspegi feminista ardatz hartuta. Zenbait teknika erabiliko ditugu, eta argazkigintzan eredu izan diren emakumeen lanak aztertu.

Parte hartzaile kopurua: 16

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ura Iturralde Larrañaga

Nuestras emociones pintadas

Emakumeok hitzez adierazten ditugu sentitzen ditugun emozioak, eta askotan ez ditugu entzuten. Eta ahotsari auto-behaketa eta pintura gehitzen badizkiogu, izenik ere jarri ezin dioguna adierazteko? Beldurra edo poza, konfiantza edo larritasuna, segurtasunik eza, energia... Gorputzeko dinamiken, bat-bateko pinturaren, erretratuaren eta autoerretratuaren bidez, gure emozioak adierazi eta kudeatuko ditugu, autoezagutza eta garapen pertsonala landuko ditugu, eta, bitartean, gure artean laguntza-ereduak ehunduko ditugu, kolektiboki berreraikitze.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Leire Markinez Calvo

Boxeo-tailerra

Boxeoari buruzko estereotipo ugari daude; besteak beste, gizonen indarraren beharra. Hala ere, gero eta emakume gehiagok egiten du boxeo. Boxeo-tailer honetan, kirol honekin lehen harremana eginez, erakutsiko dugu emakumeok borrokalaria garena, boxeo egiteko gaitasun tekniko ezberdinak ditugula, eta planteatu ditugun erronka pertsonal eta kolektiboei aurre egingo diegula.

Parte hartzaile kopurua: 17

Hizkuntza: Euskara / gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ixa Rodriguez

KONTRAKO EZTARRITIK
AMAREN
BIGARREN BAZA
SEXUA

Hil arte Bizi (2.zatia)

Hil Arte Bizi tailerrek heriotzaren aurrean ahaldundutzea dute helburu. Tailer hauen bigarren zati honetan, osasungintzari begira jarriko gara, eta Aurretiazko Borondateen Dokumentua ardatz hartuko dugu, baina horretara bakarrik mugatu gabe, osasunaren eta heriotzaren inguruan norberak dituen nahiak eta hartu ditzakeen erabakiak argitzen saiatuko gara.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Nere Erkiaga

Sormen akelarrea

Ikastaro honetan zenbait teknika erabiliko ditugu, askotariko esparruetatik sormenera hurbiltzen lagunduko digutenak. Marrazkiaren, collagearen, marmolatzearen, akuarelaren, estanpazioaren edo liburu zabalgarrien bidez, sormenerako dugun ahalmenera hurbilduko gara. Emakume artisten lanak ezagutuko ditugu eta haien margolanak, konposizioak edo poemak hartuko ditugu abiapuntutzat. Tailer hau topagune bat da, partekatzeke une propio bat.

Parte hartzaile kopurua: 16

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Pili Aguado

Grupo de Literatura de mujeres del mundo

Beste emakume batzuek garbitu eta irmo bihurtu dute bidea. Gurekin batera, beste emakume batzuk bide paraleloak egiten dituzte. Bere urratsak neurtzea, aprobetxatzea, bere esperientziari, bere gozamen eta sufrimenduei balioa emateko modurik onena da. Bere sormen- eta bizi-estrategiek, bere proposamenen irudimenak, gureak aberasten ditu. Horiek ezagutzea geure burua pixka bat gehiago ezagutzea da. Munduko Emakumeen Literatura herrialde eta kultura desberdinetako idazleen lanetan barrena amaierarik gabe bidaiatzea da, eta haien kezken eta baldintzen leihotik begiratzea

Parte hartzaile kopurua: 31

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Mertxe Tranche Iparragirre



Hilekoa, autoezagutza eta ziklikotasunari buruzko tailerra (11-14 urteko neska gazteentzat)

Emakumeen* hilekoarekin lotu dira gure ziklikotasunari, sexualitateari eta gorputzei buruzko ideia negatiboak eta tabuak. Eta ideia horiek gure gorputzean pairatzen ditugu; ezjakintasunez, beldurrez, minez... bizi ditugu. Baina ziklikotasuna emakumeok* gure buruak ezagutzeko eta maitatzeko dugun gaitasun propioa da. Min edo deserosotasun horiek uxatzeko garaia da. Bi saio hauetan, taldearen babesean, zu zeu izango zara protagonista, zure gorputzarekin konektatzen eta gorputzari entzuten hasiko zara, eta zure behar eta emozioei dagokien lekua ematen.

Parte hartzaile kopurua: 15

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola. Gazteria Sailarekin, Topagunearekin eta Tolosaldea Garatzeneko Aniztasun Sailarekin Elkarlanean

Dinamizatzailea: Maialen Mujika Diaz



Taller manejo de herramientas de mano

Helburu nagusia tradizionalki maskulinoak izan diren esku-tresnen erabilgarritasuna ezagutzea da, eta tresna horien erabilera menderatzea, etxeko konponketetan autonomoagoak eta brikolajearekin sortzaileagoak eta aktiboagoak izateko. Hainbat zulagailu, guraize zurigarri, sarjenta, bihurkinak (askotariko puntak, giltzak, mailuak, zerra-orria, beratzeko eta disko-makina eta abar) erabiltzen erakutsiko da.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Carmen Melchor

Autodefentsa Feminista

Hobeto identifikatu nahi al dituzu eraso matxistak? Aurre egiten ikasi nahi duzu? Libre sentitu nahi duzu zure bizitzan eta kalean? Uste duzu ezin izango duzula zeure burua defendatu? Pentsatzen duzu hori zuri bakarrik gertatzen zaizula? Saio honek autodefentsa feministari buruzko esperientziak eta ideiak partekatze espazio segurua da. Bertan, beldurrak eta amorrua bezalako emozioak landuko dira, horiei aurre egiteko baliabideak eman eta egunerokotasunean jasotzen diren erasoak identifikatzen ikasiko da. Helburua, autoestimua indartu eta ahalduntze prozesuan bidelagun izatea izango da.

Parte hartzaile kopurua: 14

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Emagin Elkartea



Gozamenaren bideak, desiraren bidezorak (18-30 urteko neska gazteentzat)

Ez naiz iristen orgasmora. Bakarrik bai, zurekin ez. Zurekin bai, bestearekin ez... Bukatu duzu? Zer da txortan egitea? Gutxi egiten dugu larrutan. Gogo ezberdinak ditugu. Gure adierazpen erotikoak estutzen dituzten ereduak buruzko hausnarketan murgilduko gara. Hortik abiatuta gure burua birpentsatu, gure gorputzarekin konektatu eta haren aukerak, gogoak eta abar irakurriko ditugu, topaketa erotikoa jolas partekatu bihurtzeko. Helburu nagusia norberak bere burua pentsatzeko eta ulertzeko giltzarriak eskuratzen hastea eta norberaren desiretara hurbiltzeko bideak bilatzeko aukera sortzea da. Aurkezpen teorikoz lagunduta, denon artean solaserako gune bat sortuko dugu, introspektzioarako unetxoaz gain, eta emakumeak estutzen gaituzten eredu zurrunez ere hitz egingo dugu.

Parte hartzaile kopurua: 6

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzaileak: Maialen Dorransoro Soraluze eta Elene Jimenez Jimenez

Sangre y resistencia. Políticas y culturas alternativas de la menstruación liburuaren aurkezpena


“Sangre y resistencia” liburuak zenbait gizarte eta kultura-aldaketa aztertzen ditu. Horretarako, abiapuntu dira hilekoaren politika eta kultura alternatiboei buruzko gorputz-etnografia. Liburuaren orrialdeetan barna, egileak sakon aztertzen ditu hilekoari lotutako teknologia feministetan, gorputz-iruditeria alternatiboetan zein osasunari lotutako pentsamenduak eta praktikak, eta askotariko estrategia feministak eta ezagutzak kolektiboki eraikitze prozesuak nabarmentzen ditu. Hori guztia liburuaren haria izanik, generoaren, osasunaren, kontsumo-gizartearen eta politikaren inguruko aldaketa orokorragoei begiratzen die liburuak.

Parte hartzaile kopurua: 16

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzaileak: Miren Guilló liburuaren egilea eta Laura Muelas



Mahai-ingurua: Emakumeen eta feminismoaren memoria espazio publikoetan

Hirigintza feministak hiri eta herri seguru-agoak eta berdinzaleagoak sustatzen ditu. Besteak beste, emakumeek eta feminismoak espazio publikoetan (kaleak, plazak, parkeak, ekipamenduak...) egiten dituzten ekarpen indibidualak eta kolektiboak ikusaraztea eta aitortzea bultzatzen du. Oraingo honetan, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerrien esperientziak ezagutu eta horiei buruz hausnartuko dugu, eta gure inguruan hasitako urratsekin nola jarraitu ikusiko dugu.

Parte hartzaile kopurua: 19
Hizkuntza: Euskara / gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.
Dinamizatzaileak: Parean Elkartea; Mertxe Tranche Iparraguirre (Ikertzailea); Zaida Fernandez Perez (Asamblea de Mujeres de Ermua); Miren Urkijo (Foro Mujeres y Ciudad de Donostia)



Taller sobre Interseccionalidad y feminismo decolonial: de la teoría a la práctica cotidiana

2009. urteaz geroztik, Bidez Bide Elkartek aholkularitza eta laguntza ematen die profesionalizazio- eta prestakuntza-prozesuei, eta emakume migratuen eskubideak aldarrikatzen ditu. Batez ere, emakume migratu horiek mendeko pertsonak zaintzen lan egiten dute, eta Gipuzkoako bizitzaren iraunkortasunari ekarpena egiten diote.

Tailer honen helburua gure lanaren ikuspegi eta metodologiei buruzko informazioa partekatzea da, feminismo dekolonialaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik. Era berean, hausnarketan, kulturen arteko elkarrizketan eta beste jakintza batzuen, erresistentziak eta praktika politikoak. Erakunde feministetako emakumeei eta emakume migratuekin esku hartzeko prozesuetan laguntzen dutenei zuzenduta dago.

Parte hartzaile kopurua: 10
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola. Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Sailarekin elkarlanean
Dinamizatzailea: Katia Reimberg eta Soraya Ronquillo (Bidez Bide Elkartea)

Kosmetika naturala egiten ikasteko tailerra

Tailerraren helburuak dira, ondo pasatzeaz gain, larruazalaren ezaugarrien eta garbitasunaren garrantziaz jabetzea, eta zenbait produktu natural ezagutzea eta egitea. Horrekin batera, arlo honi lotutako praktika ekologikoak eta autosufizientzia-koak bultzatuko ditugu. Teoriaren oinarri batzuk azaldu behar dira beti, baina tailerra praktikoa eta entretenigarria izango da. Zenbait formulari jarraituz, ur mizelarra, esfoliatzailea eta krema bat egingo ditugu.

Parte hartzaile kopurua: 15
Hizkuntza: Euskara / gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola. Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Sailarekin elkarlanean
Dinamizatzailea: Bidatz Sasiain



2024ko udaberriko egitaraua

Emakumeak mugimenduan

Heziketa patriarkalak kontrola ezarri du gure gorputzetan; nola eta zer pentsatu, zer sentitu eta nola mugitu aginduz. Gorputzaren kontzientzia kendu digute, eta gure gorputzarekin harreman ez osasuntsuak sortzea ekarri du horrek. Gure gorputza etengabe ari da behar duguna komunikatzen, gu askotan konturatzen ez garen arren. Eta gure gorputzen eta mugimenduen jabe bagara, zenbat eta harreman osasuntsuagoa izan gure gorputzekin, orduan eta askeago sentituko gara benetan eraiki nahi dugun bizitza hori erabakitzeke. Horretarako, espazio seguru eta konfidentzial bat sortuko dugu, emakume bakoitzak lasai adierazi ahal izateko, gorputzaren bidez, momentuan sentitzen duen hori.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Oihane Vicente Aguirrezabal

Batukada feminista

Ikastaroaren helburuak dira emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaraztea, gure irudimena eta sormena garatzea. Horrez gain, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturaren dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok eta feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

Parte hartzaile kopurua: 21

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ainara Sarasketa Alberdi

Comunicación igualitaria y espacios saludables para las mujeres

Komunikazioa emozioak adierazteko, erreakzioak sortzeko eta esaten eta isiltzen dugunaren bidez harremanak definitzeko espazioa da. Tailer honetan generoko komunikazio-estiloak buruz hausnartuko dugu, hitz egiteko eskubidea, isiltasuna, forma, tonua eta komunikazio-estrategiak harreman patriarkalei lotuta baitaude. Konpetentzia asertiboa funtsezko tresna da. Hitzarekin botere patriarkalaren praktikak berretsi eta desegin ditzakegu, baina erreproduzitu ere egin ditzakegu. Era berean, hitzaren bidez emakumeentzako espazio osasungarriak eraiki daitezke, edo, aitzitik, berdintasunezko komunikazioa beldurtzen, erasotzen edo eragozten duten harremanak erreproduzitu.

Parte hartzaile kopurua: 15

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Pepa Bojó Ballester



Xilografia tailerra (linolio gainean): sormena eta aldarrikapenak plazara!

Xilografia tailer honen bitartez, gure eskuekin dugun sortzeko ahalmenari bide emango diogu. Antzinako teknika hau ikasteaz gain, bakarka nahiz taldean lan egingo dugu, irudi, aldarrikapen feminista eta hainbat mezu paperean eta oihalean estanpatuz. Grabatuaren historian diren eta izan diren emakume artistei buruz ere arituko gara.

Sormenezko argazkigintza ikuspegi feministatik

Adin guztietako emakumeei zuzenduriko ikastaro honetan, guk geuk erabakitako proiektu bat osatuko dugu elkarlanean. Mugikorra edo argazki kamera erabiliz, sormena landuko dugu, betiere ikuspegi feminista ardatz hartuta. Zenbait teknika erabiliko ditugu, eta argazkigintzan eredu izan diren emakumeen lanak aztertu.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Ura Iturralde Larrañaga



Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Oihana Ugarte Iriarte

Grupo de Literatura de mujeres del mundo

Beste emakume batzuek garbitu eta irmo bihurtu dute bidea. Gurekin batera, beste emakume batzuk bide paraleloak egiten dituzte. Bere urratsak neurtzea, aprobetxatzea, bere esperientziari, bere gozamen eta sufrimenduei balioa emateko modurik onena da. Bere sormen- eta bizi-estrategiek, bere proposamenen irudimenak, gureak aberasten ditu. Horiek ezagutzea geure burua pixka bat gehiago ezagutzea da. Munduko Emakumeen Literatura herrialde eta kultura desberdinetako idazleen lanetan barrena amaierarik gabe bidaiatzea da, eta haien kezken eta baldintzen leihotik begiratzea

Parte hartzaile kopurua: 32

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Tolosako Udal liburutegiarekin elkarlanean

Dinamizatzailea: Mertxe Tranche Iparragirre

Gatazkak aukera gisa kudeatzea

Eta nork ez du gatazkarik? Eta zer da gatazka bat? Zer bizipen dugu gatazkarekin, edo zer sentimendu sortzen digu gatazkak? Non eta nola kokatzen gara emakumeok, gatazka nabaritzen dugunean? Zer ikasten duzu gatazka batetik? Eta gatazkarik ez balego?

Ikastaro honetan, gatazkarekiko dugun harremanaz hausnartuko dugu, gatazka bizirik egotearen adibide gisa kokatuz batetik, eta gure garapen emozional eta sozialean aurrera egiteko aukera moduan erabiliz, bestetik. Gatazka norbanakotik hasten dela ohartuta, bikote edo taldeari eragingo dio, eta beti egongo da helburu edo interesei lotua.

Arrazoa edukitzea baino, zer behar asetzeko beharra dugu gutako bakoitzak gatazkaren bidez?

Parte hartzaile kopurua: 11

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Nerea Redondo Otamendi



Nuestras emociones pintadas

Emakumeok hitzez adierazten ditugu sentitzen ditugun emozioak, eta askotan ez ditugu entzuten. Eta ahotsari auto-behaketa eta pintura gehitzen badizkiogu, izenik ere jarri ezin dioguna adierazteko? Beldurra edo poza, konfiantza edo larritasuna, segurtasunik eza, energia... Gorputzeko dinamiken, bat-bateko pinturaren, erretratuaren eta autoerretratuaren bidez, gure emozioak adierazi eta kudeatuko ditugu, autoezagutza eta garapen pertsonala landuko ditugu, eta, bitartean, gure artean laguntza-ereduak ehunduko ditugu, kolektiboki berreraikitze.

Parte hartzaile kopurua: 14

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Leire Markinez Calvo

Iniciación al bricolaje

Tailer honetan oinarrizko ezagutzak eskuratuko dira etxean sor daitezkeen behar batzuei aurre egiteko, konponketa txikiak egiteko eta modu seguruan lan egiteko jarraibideak emateko. Oinarrizko tresnak ezagutzen eta erabiltzen ikasiko dugu, gure gaitasunekiko autokonfiantza indartuko dugu eta gure autonomia zabalduko dugu.

Parte hartzaile kopurua: 12

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea: Carmen Melchor

Euskal emakume idazleen irakurketa feminista

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urtean argitaratutako lanak irakurriko ditugu, egungo testuinguru eta bizipenetatik. Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen ari den kezka, diskurtso eta proposamenak denen artean hausnartzea eta horiek genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea.

Parte hartzaile kopurua: 24

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Tolosako Udal Liburutegiarekin elkarlanean.

Dinamizatzailea: Oihana Iguaran

Meditazioa, garapen pertsonala eta elkarlaguntza

Mindfulness eta coaching tekniken bidez, ahalik eta modu natural eta errazenean landuko dugu autoezagutza; izan ere, helburua da geure buruarekin konektatzea, gure emozioak eta bidean ager daitezkeen buruhausteak kudeatzeko tresnak eta laguntza jasotzea. Talde-espazio bat da, eta elkarrekin asko ikasteko aukera eman diezagukeen gunea.

Parte hartzaile kopurua: 11

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola

Dinamizatzailea:

Leire Laca Saralegi



¿Qué y cómo podemos aportar los hombres al feminismo? Taller abierto

Borroka feminista “emakumea” subjektu politikoak antolatzen du, eta tentsioa sortzen du gizon kontzientziatuek edo “aliatuek” hainbat ekimen edo eztabaida egin nahi dituztenean; izan ere, askok ez dute oso argi non eta nola egin behar dioten ekarpena feminismoari, eta, batzuetan, maskulinitateekin lotutako rolak ere erreproduzitu ditzakete.

Horregatik, beharrezkoa da geure buruari galderak egitea. Zer da “aliatu” izatea? Zer adierazgarritasun mota izan beharko genuke honetan guztian? Nola eraikitzen dugu agenda propioa?

Habitat partekatu bat eraikitzen lagunduko duten ideiak edo estrategiak hausnartu eta partekatuko ditugu. Mugimendu feminista eta gizon-taldeak, berdintasuneko herri bat eraikitzen

Parte hartzaile kopurua: 10

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Egoitz Arbiol Albeniz

(Hiruki-Larroxa)

“Amatasunak, ez amatasunak eta ahaidetasun feministak” solasaldia

Antolakuntza sozial eta politikoa ez dago bizitzaren mesedetan. Zaintza zein ugalketa lanak indibidualizatu dira, feminizatu, merkantilizatu, eta etxeetan zein familia nuklearretan pribatizatu.

Komunitate afektibo eta politiko berriak sortu nahi ditugu, ahaidetasun feministak indartzen jarraitu. Nola indartu ditzakegu senidetasun iruditeria berriak? Zein dira erditzen diren gorputzen beharrak? Nola egin aurre gizonen absentziari? Nolako interpelazioa egin behar dugu? Amatasunak dakarren bakardadearen aurrean nola egin kiantza komunitarioa feminizazioan berriz ere erori gabe? Nola erreferentzializatu ez-amatasun kontziente eta politikoak? Zein paper izan behar dute horretan guztian erakunde publikoek, merkatuek, komunitateek?

Parte hartzaile kopurua: 20

Hizkuntza: Euskara

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Miren Aranguren eta Itzea Urkizuren arteko solasaldia



Yo también tengo estudios. ¿Cómo homologarlos?

Jatorri desberdinetako emakume askok ikasi dugu, baina gaur egun ez gara gure lanbidean lanean ari eta ezin dugu gure prestakuntza akademikoarekin jarraitu. Jarduera honetan esperientziak trukatu ditugu, eta informazioa, aholkularitza eta orientazioa eskainiko ditugu gure jatorrizko herrialdean egindako bigarren mailako ikasketak, batxilergoa, ikasketa teknikoak eta goi-mailako ikasketak homologatzeko, baliozkotzeko eta aitortzeko baldintzei eta prozesuari buruz.

Parte hartzaile kopurua: 4

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Katia Reimberg Castello (Asociación Bidez Bide)

Kosmetika naturala egiten ikasteko tailerra/ Taller de Cosmética natural

Tailerraren helburuak dira, ondo pasatzeaz gain, larruazalaren ezaugarrien eta garbitasunaren garrantziaz jabetzea, eta zenbait produktu natural ezagutzea eta egitea. Horrekin batera, arlo honi lotutako praktika ekologikoak eta autosufizientziakoak bultzatuko ditugu. Teoriaren oinarri batzuk azaldu behar dira beti, baina tailerra praktikoa eta entretenigarria izango da. Zenbait formulari jarraituz, ur mizelarra, esfoliatzailea eta krema bat egingo ditugu.

Parte hartzaile kopurua: 15

Hizkuntza: Euskara / gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Bidatz Sasiain

GURETZAKO (Para nosotras): ESPACIO PARA MUJERES DE DIVERSOS ORÍGENES

Sesión informativa sobre extranjería/nacionalidad

Informazio-saioaren helburua atzerriartasunari/ nazionalitateari buruzko oinarritzko informazioa ematea izango da. Baimenak izapidetzeko gai praktikoak ezagutzea ere erraztuko da. Edukiak honako hauek izango dira:

- Atzeritarren eskubideak
- Egonaldi-egoera: ikasketengatik, iraupen laburra.
- Bizileku-egoera: aldi baterako bizileku- eta lan-baimena, salbuespeneko zirkunstantziengatik (errotze-figura berria prestakuntzaren arabera), iraupen luzekoa.
- Berritzeak.
- Familia berriz elkartzea.
- Erregimen komunitarioa.
- Nazionalitatea

Parte hartzaile kopurua: 10

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Aholku-Sarea (Servicio Jurídico del Gobierno Vasco)

Lectura fácil

Irakurtzeko zailtasunen bat baduzu hizkuntza ondo ezagutzen ez duzulako, edo irakurtzen duzuna ondo ulertzen ez duzulako, irakurketa errazaren metodoak testuak argiago ulertzen eta guztien artean lankidetzan aritzeko trebetasunak garatzen laguntzen digu.

Parte hartzaile kopurua: 18

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzailea: Tolosako Udala. Jabetze Eskola.

Dinamizatzailea: Mónica Leiva

Ekintzak

Jabetze Eskolako ikastaroez gain, hainbat ekimenen babesleku ere izan da Andragora. Hauek Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak zein Andragorak antolatu ditu, bai eta beste eragileek ere. Jarraian hauen inguruko informazioa.

MARTXOAK 13 | 19:00

Insumisas

Dokumentalaren proiektzioa eta ondoren Ana Sanz, Fatimatu Jatri Lehbib eta Itsaso Anduezak emandako hitzaldia


Itsaso Andueza Euskal Fondoako ordezkariak Euskal Fondoak finantziatutako Insumisas dokumentala aurkeztu zuen eta erakundeak Sahararen inguruan egindako lana eta dituzten proiektuei buruz aritu da.

Fatimatu Jatrik Mendebaldeko Saharako egoera testuinguruan jarri du, eta, horrez gain, bi lurraldeetako emakume sahararrei buruz hitz egin du, Tindoufeko kanpamentuetakoak zein lurralde okupatuetakoak. Hori guztia diasporan jaiotako edo hazitako pertsonen nola bizi izan duten azaldu du.

PIMSO: Mendebaldeko Saharako Emakumeen aldeko Nazioarteko Plataforma elkarteak, GKEak, emakume solidarioen kolektiboak eta sahararren borrokarekin konprometitutako jarraitzaileak biltzen ditu eta Saharako emakumeei nazioarteko ekitaldietan parte hartzen laguntzea du helburu.

Ana Sanz Talde Eragileko kide da, plataforma aurkeztu du eta Tindouf eko kanpamenduetan azaroan egin zen Sahararen aldeko Emakumeen II. Martxaren bigarren edizioan bizitako esperientziaz aritu da.

Parte hartzaileak: 40
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udaleko Berdintasun saila



MAIATZAK 7 | 19:00

Autodefensa feminista. Más allá de aprender a decir no

Maitena Monroy fisioterapeutak Autodefensa feminista. Más allá de aprender a decir no liburuaren aurkeztu zuen Andragoran. Parte hartzaileekin elkarriketa moduan planteatuta, indarkeria matxistaren bueltako hausnarketa eta gogoetak partekatu dira saio honetan.



Parte hartzaileak: 11
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea



MAIATZAK 9 | 18:00

“La búsqueda II” solasaldia

Cristina Chiquin argazki-kazetari guatemalarrak “La búsqueda II” liburuaren inguruko solasaldia eman zuen Andragoran. Guatemalako emakumeek abiatutako justizia eta erreparazio prozesuak aurkeztu zituen Cristinak, barne-gatazka armatuak eragindako bortxagatik, bai bortxazko desagertzeengatik eta genozidioagatik abiatutako justizia eta erreparazio prozesuak, hain zuzen. Prozesu hauetan ateratako argazkiak azaltzeaz gain, bideo-proiektzio batekin borobildu zen saioa.



Parte hartzaileak: 12
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Saila, Tolosako Udaleko Berdintasun Saila, Lagunartean/Entreamigos



MAIATZAK 10 | 19:00

La resistencia palestina - Reem dam dam

Palestinarekiko erantzukizuna plataformarekin elkarlanean La Resistencia Palestina hitzaldia antolatu du Andragoran Berdintasun sailak.

ALKARAMA, emakume palestinarren mugimenduko kide den Reem Dam Dam izan da hizlari. Alkarama 2017an sortutako erakunde palestinarra, laikoa eta antikolonialista da eta diasporan emakume palestinarren espazio berri bat sortzeko du helburu nagusitzat.



Parte hartzaileak: 20
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udaleko Berdintasun saila



MAIATZAK 17 | 17:30

Andra festa

Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea 5 hilabetez martxa hartu duen horretan, eskualdeko emakumeak elkartu, saretu eta ondo pasatzeko egun bat izan da. Bertan, Batumore Batukada Feminista, Kantagora, Amaia Agirre, Ixabel Agirresarobe, Olaia Toral eta Maider Iñurrita, Mirari Martiarena eta Blessing abeslaria izan genituen gurean. Eskualdeko emakumeok elkartu, saretu, elkarrekin gozatu eta dantzarako parada izan genuen. Ederra izan zen!

Parte hartzaileak: 20
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Euskara / Gaztelania
Antolatzailea: Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea



*Argazkien egiletza: Tolosaldeko Ataria

MARTXOAK 22 | 18:30

Dardarak artxiboan erakusketa –
Maritxu eta Katalinaren kasua kalera

Maritxu eta Katalinaren kasua kalera’ erakusketaren inaugurazioa egon da Andragoran. Erakusketaren irekiera, album ilustratuaren aurkezpena eta bisita gidatu batekin osatu da honakoa. XVI. mendeko lesbianen arteko istorioan oinarritzen da. Donostian bizi izan ziren Maritxu eta Katalinaren aurkako prozesu judiziala ezagutzera emateko helburua duen erakusketa sortu dute Jone Aurrekoetxea eta Karmele Mitxelenak.

Erakusketarekin batera, Txalaparta argitaletxearekin batera, eta Irene Iruretak ilustratua “Dardarak” (Aurrekoetxea, J., Mitxelena, K., Irureta, I., 2024) izeneko album ilustratua sortu dute.

Katalina Belauntzakoa, Maritxu Oiartzungoarekin “Haragizko harremanak” izateagatik atxilotuak izan ziren Donostiako alkatearen eskutik. 1503ko dokumentu judizial batean oinarrituz, 500 urtez isildutako genero eta sexu disidentzien inguruko ibilbide bat proposatu da bi aste inguruko iraupena izango duen erakusketan.

Garaiko istorio hura eta genero eta sexu disidentzien errepresioaren inguruan aritzen den erakusketa da.

Parte hartzaileak: 22
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Euskara
Antolatzailea: Tolosako Udaleko Berdintasun saila



MAIATZAK 30 | 18:00

Aurretiazko borondateen agiria

Oneka, emakume pentsiodunen plataformak antolatuta, aurretiazko borondateen agiria osatzeko saioa izan da hau.



Parte hartzaileak: 19
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Euskara / Gaztelania
Antolatzailea: Oneka, Emakume Pentsiodunen Plataforma
Dinamizatzailea: Raquel Cousillas Peña

EKAINAK 5 ETA 12 | 17:00-19:00

Sexu heziketa

Emakumeentzako Sexu Hezkuntzako Tailerra – Norberaren sexualitatea barrutik kanpora eraikiz. Sexualitatearekin lotutako gaiei buruz argi eta garbi hitz egiteko gune segurua. Elkarrekin ikasteko eta hazteko.

Berdintasun Ministerioak diruz lagunduta eta SEDRA Familia Plangintzako Federazioarekin lankidetzan. Federazio horrek osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen alorrean lan egiten du, eta pertsona guztiek beren sexu- eta ugalketa-bizitzari buruz erabakitze eta autonomiaz baliatzeko duten eskubidea sustatzen du.

Parte hartzaileak: 19
Lekua: Andragora
Hizkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Tolosako Udaleko Berdintasun saila

Eskerrik asko

Andragora, Tolosaldeko
Emakumeen Etxeari
bizia eman
diozuen guztioi!



*Argazkiaren egiletza: Tolosaldeko Ataria